



Beste behin, ezpatak dantzan

TOKIKOM





BAZKIDEON eta IRAKURLEON LAGUNTZA BEHAR DUGU

ASTO-KAKA BEHAR BEZALA ANTOLATZEKO
URRIAREN 14an eta 15ean (ostirala eta larunbata)

- Barran lan egiteko.
- Pintxoak prestatu eta saltzeko.
- Txosna eta mahaiak jartzeko.
- Baba-janerako: mahaiak prestatu eta bazkariak emateko.
- ...

LAGUNTZEKO PREST ZAUDETENOK:

- Deitu: 943 741 626
- Idatzi: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
- Etorri: Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen egoitzara.

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

B

Tel.: 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Danok irabaziko dogu BARREN! Etorri eta gozatu!

Gaia emanda...

Gaiak jarri dizkiegu bertsolariei Gipuzkoako Txapelketan eta iritzia idazteko gaia edo aitzakia Barrenek ipini dit niri gaurko honetan. Nola ba ezetz esan Gpuntuaren trenea larunbatean sartuko bada tunelean barena gure herrian bertan.

Gpuntua, hori da asuntua. Agurreko doinu biziakin entrenamentua, zortziko handian zein txikian gaia, bakarka hitza eta ondoren puntua eta kartzelan doinu eta neurri librean erakusten dute bertsolariek beren talentua.

Bertsolariek kantatu dezaten aurrez gaiak jarri behar dira, ordea. Buruan ideia asko egon arren gordea, horiek paperera pasa eta bertsolariei emateko buruari zenbat buelta ematen diogun... ez kontatzea hobea. Baina zeozertarako elkartzen gara gajartzaille talde edo batzordea.

Gai jartzailleok garaiz bete behar izaten dugu gai poltsa eta horretarako talde lanean egiten dugun bidea ez da ez motza. Bertsolarien ahotik ateratzen da ahotsa baina taularen atzeko gure pausoen hotsa.

Bi hilabete falta ziren txapelketa hasteko lehen pausoa eman genuenean eta hutsik gure almazena. Gai bat bota zuen batek eta ona lehena; beste bat bota nuen nik eta horri pare bat buelta ematea onena, beraz, hobetuta eraman nuen hurrena. Bazirudien betetzen zihoala zaku dena...

Gai guztiak ez dira onak eta horrelakoetan alperrik dira bromak. Isiltasunak sortu ohi ditu ezinegonak, baina laster hausten du dagokionak: "Nik uste gai honek ez dituela betetzen aurrez jarritako kanonak", "nik pentsatzen dut aurreko fasean ere jarri genituela bilobei begira aitonak"...

Zalantzako gaiak kanpora eta balekoak zakura eta saioaren eguna gerturatu ahala gaiak hartzen dute itxura. Iparragirrerren doinurako gai batzuk falta eta elkarri esaten diogu: "Espabilatu ba". Baina txapelketan aurrera joan ahala, saiotik saiora, zakua behera doa, ia-ia hustu da.

Espero dut bertsolarien biltegia beteta egotea, beraiek gozaraziko baitigute gure bazkalostea eta doinu, ideia eta arrazoi txukunekin jarriko baitiote bertso janaldi bikainari postrea.

Bertso menua gustuko izanez gero, larunbat arratsaldean Herriko Antzokira. Gaiak prest dira eta bertsolariek haiei punta ateraz egingo dute dizdira bertsozaleak erakarriz Gpuntuaren erdira.

Irati Agirreazaldegi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Bertso menua gustuko izanez gero, larunbat arratsaldean Herriko Antzokira"



ESKERTZA

JUAN MARI MUGUERZA ALDAREGOIA

2011ko irailaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

CATALINA IRIONDO AGIRREGOMEZKORTA

2011ko irailaren 27ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



DIMAS GIL, KAMERA ATZEKO PROTAGONISTA



Dimas Gil, Hondarribiko Aeroklubean.

60. hamarkadako irudiak. San Bartolome jaiak, herriko parrokoen hileta elizkizunak, herritarren eguneroko jarduna; eta laburmetriak; herritarrak aktore lanetan. Kamera aurrean izan ziren horiek guztiak; atzean berriz, kameraren manejuan, detaile bakoitza jaso nahian, Dimas Gil. Berari eskerrak geratu ziren grabatuta irudi guztiak. Bere seme Raulek topatu zien lekua gero, Euskadiko Filmategian, eta azkenik, Plaza Txikiko jai batzordeak berreskuratu, eta hautsak astinduta, herritarren eskura jarri ditu aste honetan zehar. Gaur, 19:30ean izango da pelikula eta laburmetriak ikusteko azken aukera. Jende ugari batu da Kultur Etxean pelikula ikustera egun hauetan eta horiek guztiak, 60. hamarkadako Elgoibar gogoratu edo ezagutzeko aukera izan dute. Orain, irudi haiek grabatu zituena zertxobait gehiago ezagutzeko ordua da.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Elgoibarren jaio zen Dimas Gil, 1910. urtean, eta urte luzeetan batera eta bestera ibili arren, orduko Donostia, Madril eta beste inguru asko ezagutzeko aukera izan bazuen ere, elgoibartarra izaten jarraitu zuen 1989. urtean hil zen arte. Berak grabatutako iru-

diak ikusiz gero ere, aski nabarmena da hori. Izan zuen bere kamera beste hamaika lekutara begira jartzeko aukera, baina horren ordez Elgoibar eta bere ingurua harropatu nahi izan zituen zortzi milimetroko zintan grabatzen zuen orduko bere kamerarekin.

Dimasek zinearekiko zuen afizioa gogoratzen du bereziki Raul semeak. Ikustea eta sortzea, biak gustatzen zitzaizkion, baina sortzerakoan ahalegin berezia egiten zuen. Bere kabuz ikasitakoa zen. Kamera erosi eta eginahalak eginahala, hobetzen joandakoa. Lagunak ere bazituen zine-munduan eta ho-

Bere kabuz, kamera erosi eta eginahalak eginahala ikasi zuen irudiak grabatzen

rrek lagundu ziola badaki semeak. Gogoratzen du nola aitak berak bakarrik egiten zituen pelikuletako kredituak ere. Etxeko alfombra gorrian paperarekin egindako letrak gainean jarrita grabatzen baizituen kredituak. "Berak egiten zuen dena: pelikulak ekoiztu, egin, eta zuzendu ere", gogoratzen du Raulek. Aktore moduan lagunekin kontaktatzen zuen eta grabaziorako edozer gauza behar zutela, segituan jartzen zen martxan hori lortu ahal izateko. Bat baino gehiago harrituko da akaso, hau jakin eta irudiak ikusi ostean, Elgoibar airetik grabatuta ageri dela konturatzerakoan. Dimas ezagutu zutenek, ordea, ondo dakite irudiok ere, berak hartuak direla. Zinezalea ez ezik, hegazkinean afizionatua ere bazen-eta. Aeromodelismoan saiaturia zen oso; Rosa Rubio, bere errainak gogoratzen du nola urteetan aurrera eginda, esku bat mugitzeko zailtasunak zituela ere, nola konpontzen zen pieza ederrak sortzeko. "Artista bat zen eskuekin".

Baina hegazkin txikiez gain, tamaina handikoak ere gustatzen zitzaizkion Gili. Pentsa, Hondarribiako aeroklubeko bazkide ere bazen, eta horri esker grabatu zituen hegazkinetik Elgoibarko irudi horiek.

Ezagun, ez soilik herrian

Berandu etorri zaio Dimas Gili herrian egin den bere irudien zabalpen hau. Elgoibartar askok eta askok ez zuen orain arte jakin ere egingo pelikulak eta laburmetraiak grabatzen zituen inor bizi izan zenik Elgoibarren baina herrian merezitako merituak aitortzeaz gain, herritik kanpo ere jakin zuten bere lana estimatzen. Izan ere, aste honetan ikusgai izan den *Camping* laburmetraiari esker Donostian sari bat jasotakoa zen Dimas.

Esan bezala baina, eta Plaza Txiki-ko jai batzordekoek, nola Raul semeak ere azpimarratu duten moduan, ez zion sekula elgoibartarra izateari laga eta herrian ekimen ugari bultzatu zituen gainera. "Berari esker agertu zen Olentzero kalera lehen aldiz eta Errege Magoen kabalgata ere, berak bultzatuta egin zen estreinakoz Elgoibarren" aipatu dute semeak eta errainak.



60. hamarkadako irudiok orduko Elgoibar ekarri digute begien aurrera. Garai hartan herria ezagutu zutenek oroitzapenetan murgiltzeko aukera paregabea izan dute, seguru. Aldiz beranduago jaiotakori, horretarako baino, egun bizi garen herriaren inguruko zerbait gehiago jakiteko balio izan digute aparteko zine-emanaldi hauek. Eta horien bitartez, kameraren aurrekoak ez ezik, atzekoa ere gerturatu dugu guregana. Kamara eskuan, beste batzuek protagonista bilakatu zituena izan baitzen Dimas Gil; bera ere, protagonista.

Donostian, 'Camping' laburmetraiarengatik eman zioten saria jasotzen Dimas, Raul semea alboan duela.

Elgoibartar ugari bildu zen pelikularen lehen emanaldian. Saioa hasi aurretik baina, Raul Gil semeari eta Rosa Rubio errainari oroigarri bat eman zien Alfredo Etxeberria alkateak.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Txikixan haundil!

Egun dezente pasa da aurtengo Txiki eguneko bazkaritik, baina oraindik ez dira borrotatu egun hartako oroitzapenak gure buruetatik. Goizean goiz hasi ginen dena prestatzen, bazkide eta herriar mordo batek lagunduta. Dena prest laga genuenean, berriz, gehienak Txiki egunaz gozatzera joan ziren. Txiki eguna gozatzeko eguna delako. Arratsaldeko 17:00etan zen hurrengo zita, eta fin-fin azaldu ziren izena eman zuten 345 lagunak. Laster bete ziren mahaiak jendez, eta platerak eta edalontziak ere di-da batean zikindu genituen janariz eta edariz. Hura dena biltzeko, berriz, lagunarteko giroa, musika alaia eta ondo pasatzeko gogoia.

Handia izan zen aurtengo Txiki eguna Elgoibarko Izarrentzat. Baina egun horrek gurean laga duen arrastoa jende askori esker izan da, eta gure esker ona azaldu nahi dizuegu: eskerrak eman nahi dizkizuegu bazkaltzeko izena eman zenuten guztioi, eta datorren urtean ere gurekin nahi zaituztegu; eskerrik asko, goizean mahaiak jartzen lagundu zenuten guztiei; mila esker, bazkari sasoiari mahaiak zerbitzen eta barran edariak ateratzen jardun zenutenoi; eskerrik asko, baita ere, jendeak alde egin zuenean hura dena jasotzen geratu zinetenoi; eta eskerrik zintzuenak, azkenik, Udal Brigadako langileei, gurekin benetan ondo portatu zinetelako.

Jende askoren artean handitu genuen Txiki eguna, eta saiatuko gara datorren urtekoa handiagoa izan dadin, zuek lagun zaituzteguna.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak

Tupust politikus = tragus pueblus

Udalaren jarrera salagarria da. Hirigintza planaren alegazioak egin zirenetik denbora dezente pasatu da, eta oraindik ez dut erantzunik jaso. Zertarako egiten dira orduan, legez oso politikak diren "paripe" horiek, gero errealitatean kasurik egiten ez badute? Gauza polita da hauteskundeetan herriari galdetu zaiola esatea, baina hori da, esatea. Beste kontu bitxi bat da Agenda 21eko bileretan jende parte-hartzailea hautatua izaten dela.

Beraz, ez adarrik jo, eta ea lotsa sentitzen duen, sentitu behar duenak, izan ere, aldatzeko jarrera funtsik gabekoa iruditzen zait.

Politikariak dira erabaki berean bi aldiz tupust

egiten dutenak eta herria da bi aldiz irensten dituen kontu polit baina faltsuak.

Aitor Rosario

Urriak 1: denok Urbinara eta Gasteizera

2009ko urtarrilaren 17an AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, manifestazio bat burutu zen Arabako Urbina herrian egiten ari ziren AHTko lan eremuraino. Berau bukatutakoan, jende multzo handi bat AHTren plataformara igotzen saiatu zen. Lehenengoak esertzen ari zirenean Ertzaintzaren oldarraldia hasi zen: bertatik bertara botatako pilotakadak, borra-kolpeak... Bortizkeria herriraino zabaldu zen eta Urbinako herritarrak ere kolpatuak, irainduak eta mehatxatuak izan ziren. Herria eta ingurua setio egoeran egon zen luzaroan. Hamarnaka kolpatu eta zauritu izan ziren, eta horietako batzuek erietxetatik pasatu beharra izan zuten. Askok han bizitako izualdia ez dute erraz ahaztuko. AHTren aurkako oposizioa basaki zigorzea izan zuen helburu operazio militarhark.

Zortzi lagun atxilotuak izan ginen. Komisalgiko ia hiru eguneko egonaldian guztiz tratatu oinarri, umiliagarri eta iraingarria jasan genuen, konfiantzazko abokatua izatearen eskubidea ukatu zitzaigularik. Atera ginenean jakin genuen Auzitegi Nazionalera eraman nahi izan gintuztela, baina bertako epaile batek kasua Gasteizko epaitegira itzularazi zuela.

Bi urte eta erdi pasa ondoren, basakeria honen guztiarekin pozik ez, eta, urriaren 5ean sei lagunek epaiketa izango dugu, horietako bosti, bi eta lau urte bitarteko kartzela zigorra eskatzen zaigularik. Sei auzipetuok honako hau aldarrikatzen dugu: amalurra eta herrien geroa suntsitzeaz gain, erabat xahutzailea den proiektu hau sustatzen duten politikariak izan behar zirela epaituak, eta ez, gu. Geure delitu bakarra AHTak kendu digun lurra denbora batez berreskuratu nahi izatea izan da, plataforma huts batean eseriz –gehienok ez genuen lortu– eta euren, borra erabiliz geure burua apurtzea izan da.

Hori dela eta, ekitaldietan parte hartzeko deia egiten dugu. Eutsi AHTren aurkako borrokarri, ez dezatela gu kikitzearen helburua lortu.

Justo Arriola, Aitor Aspuru, Ekaitz Lotina, Imanol Madariaga, Pablo Ramirez eta Julio Villanueva (Urbinako auzipetuak)

Reala eta Athletic-en arteko derbia jokatu da domekan, Anoetan.

Zure ustez, zeinek irabaziko du domekan jokatu den euskal derbia?



Luis Berdonces
74 urte, jubilatua

Realak irabaziko duelakoan nago. Denboraldia Athletic-ek baino hobeto hasi du, eta itxura ona ematen ari da. laz oso gaizki ibili zen, baina aurten ondo jokutzen ari da. Bilbotarrak, aldiz, gaizki dabilta. Nik hamar bat ogerleko jokatuko nituzke Realaren alde!



Mikel Zuazolaziorraga
24 urte, mantenuko langilea

Realak irabaziko du, 3-1. Seguru-seguru, gainera! Athletic Bielsarekin oso gaizki dabil. Caparrosekin jarraitu behar zuten, hori baitzen beraien jo-koa. Athletic aurten bigarren mailara! Realak sailkapen nagusiko erdialdean amaituko balu, pozik! Daukan taldearekin ezin da gehiago eskatu.



Ainhoa Dorado
23 urte, irakaslea

Berdinketan amaituko dela uste dut, eta horrela puntuak erdibana banatuko dituzte. Baina egia esanda, ez naiz oso futbolzalea eta ez zait gehiegi inporta. Hori bai, norbaitek sarrera bat oparitzen badit, gusura joango nintzateke Anoetara! Oso giro ona egoten da.



Maria Aranberri
32 urte, sukaldaria

Ez dakit, eta ez zait inporta. Gaztetan joaten nintzen derbira, baina kalean sortzen den giroagatik. Afizioen arteko harremana oso ona da, eta hori oso polita da. Baina bestela, futbola ez zait gustatzen. Nahiago dut pilota, eta herrian ganorazko frontoi bat behar dela esateko aprobetxatzen dut.

■ SEMAFOROA




Zaborrak Garbigunera eramateko erraztasunak jarri beharko lirateke: “Zabor edukiontzietara bota ezin diren hainbat hondakin dauzkat pilatuta, eta ez dakit haiekin zer egin. Lehen, hilean behin Garbiguneko kamioia etortzen zen Plaza Handira hondakinak jasotzera, eta hara eramaten nituen, baina Arriagako Garbigunea martxan dagoenetik, kamioi hori ez da etortzen. Nik ez daukat autorik, eta ez daukat Arriagaraino joateko modurik. Mankomunitatera deitu nuen arazoaren berri emateko, eta ez zidaten irtenbiderik eman. Orduan, zaborretara bota beharko nituela esan nion telefonoa hartu zidanari, eta kontzientziarik ez baneukan, botatzeko erantzun zidan. Ez zitzaidan batere gustatu erantzun hori, hain zuzen ere kontzientzia daukadalako deitu bainuen Mankomunitatera. Hondakinak birziklatzeko erraztasunak jartzeko eskatu nahi diot Udalarri. Azken batean, denon artean ordaintzen dugu Garbigune zerbitzua, baina ezin badugu erabili, alperrik gabiltza”.



Herrian armiarna asko dagoela zioen kexa argitaratu zuen BARRENEK joan zen astean, eta kezka hori ikusirik, Udaleko Inguruaren Batzordeak honakoa argitu nahi du: “Nahiz eta armiarnak animalia goigaiarriak izan daitezkeela ulertu, gizartearentzat onuragarriak dira. Izan ere, euren elikadura, euli, liztor eta eltxo bezalako intsektuetan oinarritzen da, eta harrapakaririk ez balego, eragozpen handiagoak izango genituzke. Tenperatura hotzarekin desagertzen dira armiarnak, baina bitartean, Udala kimu-egoera larrian dauden eremuak erasotzen ari da”.



Mila esker, nire diru-zorroa aurkitu eta Udaltzaingoan utzi zuenari: “Joan zen astean diru-zorroa galdu nuen, diruz beteta eta dokumentazio guztia barruan nuela. Ez neukan diru-zorroa agertuko zenaren itxaropen handirik, eta halako batean, Udaltzaingotik deitu zidaten. Diru-zorroa diruarekin eta dokumentazio guztiarekin utzi zuten bertan. Eskerrak eman nahi dizkiot aurkitu zuenari. Garai zailak bizi ditugu eta horrelako ekintzak txalotzekoak dira.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgolbarkoizarra.com 943 744 112

Orain dela 75 urte hildako gudariak omendu dituzte Ziardamendin

36ko gerran hildako ugari oraindik lurpean daudela adierazi dute antolatzaileek

A iastiatik gertu dagoen Ziardamendi mendiko pagadi batean hainbat gudari hil zituzten 1936ko Gerran. 75 urte bete direla eta gudariok omendu zituzten joan den domekan, Elgoibar 1936 eta Ahaztuen Oroimena Markinaldeko Frentea taldeek antolatutako ekitaldian.

Elgoibarko memoria istorikoa berreskuratzeko herritarrek sortutako elgoibar 1936 taldeko kideek jakinarazi dutenez, orain 75 urte, Diaz de Riveraren indar faxistak, Nafar Brigadetan antolatutako erreketen indarrarekin, Elgoibar aldetik Bizkairantz sartzeko helburuarekin sartu ziren..

Ziardamendin, Aiastiatik gertu dagoen mendian, zain zituzten anarkistak, milizianoak eta eratu berri ziren Zubiaur eta Garaizabaleko boluntarioak. Bizkaitarrak guztiak: Mungia, Bilbo-Begoñakoa, Santurtzikoak, Barakaldokoak, e.a. Irailaren 24an Bilbotik abiatu ziren horiek, eta hurrengo eguneko egunsentirako hainbat hil zituzten antolatzaileek jakinarazi dutenez. Batzuen izenak badakizkizite, Zubiaur konpainiako sei gudari, esaterako, Derioko hilerrian hobiratu zituzten 1982an, baina egun oraindik hainbat gorpu lurpean daudela adierazi dute taldeko kideek, hainbat lekukoren testigantzei kaso eginez.



Domekan egin zitzairen omenaldiarekin, “beraien borondatez, faxistei aurre egitera etorri ziren eta zauritu zein hil zirenei gure besarkadarik beroena eskaini eta omenaldia egin nahi izan diegu. Baita, beraien familiei gure gertutasuna eta elkartasuna adierazi”, esan dute Elgoibar 1936koek.

Hemendik aurrera lanerako ordua dela gaineratu dute, “erreparazio oso bat lortu arte, benetako justizia egin arte.

Isabel Celaa hezkuntza sailburuak inauguratuko du IMHko ikasturte berria

Datorren urriaren 5ean egingo dute ikasturte berriaren irekiera ekitaldia IMHn eta horretarako, Isabel Celaa Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburua eta Carlos Crespo lanbide heziketako sailburuordea etorriko dira Elgoibarrera. Goizeko 11:00etan ekitaldian parte hartu ostean, IMHko instalazioei egingo diete bisita.

Estatu mailan, IMH, Fabrikazio Mekanikoaren Erreferentzia Zentro Nazional izendatu izanak garrantzia gehitzen dio gainera, sailburu eta sailburuordearen bisitari.

Aldaketak izango dira udal korporazioan



Iñigo Cearsolok, Bildu koalizioko zinegotziak, bere kargua laga du arrazoi pertsonalak direla medio, eta bere ordean Miren Arrate Arrieta helduko dio lanari. Pasa den legegintzaldian estreinatu zen Cearsolo Eusko Alkartasuna alderdiaren izenean eta kultura zinegotzi moduan jardun zuen. Miren Arrate Arrieta ere ez da berria lan honetan eta Bildu Elgoibarrerekin, bere lana ondo egingo duenaren ziurtasuna duela azaldu du. Era berean, Nerea Alustizak beteko du, Ovidio Campello PSEko zinegotziaren heriotza tarteko, berak lagatako hutsunea.

Pertsonaia **Justo Arriola**



Datorren urriaren 5ean, Justo Arriola eta beste bost pertsona epaituko dituzte Gasteizko epaitegian, 2009ko urtarrilaren 17an Urbinan egindako AHTren aurkako manifestazioren osteko gertakarien harira. Zortzi pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak egun hartan, eta horietako sei epaituko dituzte. AHT gelditu!-k adierazi duenez, manifestazioren ostean, Urbinako AHTaren obretan "jarrialdi baketsu eta masibo" bat egiten ari zirela, Ertzaintza agertu eta manifestarien kontra oldartu zen. Desordena publikoak leporatzen dizkiote Arriolari eta bi urteko kartzela zigor eskaerari aurre egin beharko dio. AHT gelditu!-k deituta, manifestazioa egingo dute bihar Gasteizen, arratsaldeko 18:00etan.

Ekitaldia **Bertan Debarrena Sariak**

Noticias de Gipuzkoa egunkariak antolatutako Bertan Debarrena sarien banaketa ekitaldia egin zen atzo, Herriko Antzokian. Eskualdeko erakunde, eragile eta dendak dira sarituak eta adierazgarria da oso, banatutako zortzi sarien artean, lau elgoibartarrek jaso dituztela. Karkizano mertzeriariak jaso zuen merkataritzaren saria, Nagusinalek gizartekintzarena eta Anateusk proiektuak berrikuntzarena. Era berean baina, omenaldietarako tarte ere izan zen, eta Itziar Ajuria elgoibartarra omendu zuten bizitza osoan izan duen ibilbidearengatik. Herriko Antzokian izan zen ekitaldia eta bukatu ostean, luntxa banatu zuten Txariduna hotelean.

Gizonezko bat atxilotu dute beste bati labankada bat eman diola leporatuta

Herrizaingo saileko iturrien arabera, domekan, eguerdiko 14:00etan izan zen gertakaria. Erasotzailea, biktima zegoen Elgoibarko taberna batean sartu eta gaizki esaka hasi zitzaion. Orduan, mahai batean zegoen labana hartu eta erasotuari sartu zion bizkarrean. Mendaroko ospitalera eraman behar izan zuten biktima. Ertzaintzak jasotako informazioaren arabera, erasotzailea eta erasotzuak elkar ezagutzen zuten aurrez. Eibarko Ertzain Etxeko agenteek, Elgoibarko udaltzainekin elkarlanean, atxilotu zuten ustezko erasotzailea eta epailearen aurrean laga zuten astelehenean.

Txankakua ferriako zozketa

Hamaikagarrenez, giro ezin hobean igaro zuten saltzaile eta erosleek Txankakua Merkataritza Elkarteak antolatutako feria. Joan zen zapatuan izan zen, eta bertan zozketa eginda banatu ziren, urteroko errifaren sariak. Ana Maria Bilbao, Sara Fernandez, Inma Iriondo, Koro Rivero, Amaia Ansola eta Arantza Blkondoa izan ziren zozketako irabazleak



Domekan ezingo da Trenbide kalean aparkatu

Elgoibarko Udaltzaingoak jakinarazi du, domekan 6:00etatik 22:30ak bitartean ezingo dela autorik aparkatu Trenbide kaleko etxeen alboan. Kilometroak direla eta, Bilbao-Donostia lineako trenetan datorren jendeak bidaia autobusean jarraitu dezan, bertan aparkatuta egongo baitira autobus horiek. Hortaz, igandean 6:00etarako libre laga beharko da aparkalekua.

Bideo emanaldia Jubilatuen biltokian

Adinekoen artean egoten diren zirkulazio istripu eta kolpakei aurre hartzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako kanpainaren barruan, bideo emanaldia eta hizketaldia antolatu dituzte Jubilatuen Biltokian urriaren 4ako. Jubilatuen Biltokian izena eman beharko du bertara joan nahi duenak.

Horrez gain, hilaren 6an memoria trebatzeko ikastaro bat eskainiko dute 15:30etik 16:30era. Edozein informazio behar izanez gero, Jubilatuen Biltokian eskatu.

Gosari bilera antolatu dute IMHn, astelehenerako

Datorren astelehenerako The Ten Million Project gosari bilera antolatu du Gipuzkoa Berritzenean. 09:00etan hasi eta 11:00ak bitartean izango da bilera eta Debarrenerako biztanleek parte hartzeko aukera dute.

Bileraren helburua, The Ten Million Project-eko aurtengo edizioan edota hurrengo edizioan aurkeztu ahal izateko proiektuak lantzea da; horrez gain baina, bitarte horretan, aurkeztu diren proiektu horien garapenean laguntzea ere badu xede egitasmoak. Informazio gehiago, www.imh.es/jardunaldiak atarian aurkitu daiteke.

Erretratu zaharra



1995

Aste honetako erretratu zaharra Xabier Eizagirrek ekarri du BARRENERA. 1995. urteko erretratua da, eta Donostian aterata dago, urte hartako euskal derbia jokatu zen egunean, hain zuzen ere. Elgoibartik bi autobus joan ziren Donostiara, bakoitza bere taldeari animoak ematera. Donostiako Alde Zaharrean giro bikaina zegoela kontatu du Xabier Eizagirrek, partida jokatu aurretik, behintzat. Ondoren, Athletic-en jarraitzaileak ez ziren oso pozik egongo, Realak 5-0 irabazi baitzuen egun hartan. Domeka honetan jokatuko dute aurtengo lehenengo derbia Realak eta Athletic-ek Anoetan, eta seguru Elgoibartik jende asko joango dela partida ikustera. Gogora ditzagun zein diren argazki honetan agertzen diren futbolzaleak.

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Igor Elizburu, Jose Manuel Fernandez, Silvia Hernandez, Igor Palomino, Anton Iranzo, Luis Bellota, Vanessa Ortueta eta Gorka Iriondo. **Erdiko ilaran:** Gorka Mujika, Igor Castañares, Gurutz Aizpurua, Alejandro Maestre, Juan Jose Gurrutxaga, Kaiet Blanco. **Behean:** Joseba Igartua, Martin Urigoitia, Haritz Ibarluzea, Iosu Elizburu, Ander Alkorta, Gabriel Gil, Ion Basurto eta Iñaki Gorostiza.



ARRATE OTAL ABARRATEGI

*“Izan zarenagatik eta erakutsi duzunangatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko”*

Zure koadrila


5-11 urteko haurrentzat

Euskara erabiliaz
ikasten delako!



berbazulo

Proiektuaren eragileak:



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia Eusko Jaurlaritzaren Foru Aldundia

Saio hauen bidez, euskaraz hitz egiteko erraztasunik ez duten haurrei laguntza eskainiko diegu euskararen ikasketa prozesuan; gainera, dakitena erabiltzeko bideak ere eskainiko dizkiegu. Eskola orduz kanpo, euskara erabiltzeko gune apropos bat eskainiko diegu, eta metodologia ludikoaren bidez (irteerak, jolasak, kantuak, eskulanak, antzerkiak...) euskaraz hitz egiteko dituzten zailtasunak gainditzeko lagunduko diegu.

IRAUPENA

2011ko urritik 2012ko ekainera
Astean 2 saio (Plaza txikian dugun lokalean)
Saioen egunak eta ordutegia gurasoekin zehaztuko da.

BILERA

Urriak 6, 18:30ean Plaza Txikian.

Familia ugariak, gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak eta Elgoibarko Izarra Elkarteak bazkideek matrikularen ordainketan % 10ko deskontua izango dute. Erabiltzaileak direla ziurtatzeko Ongizateko zuzendaria aurkeztu beharko dute Elgoibarko Izarra elkartearekin.

IZEN EMATEA

Urriaren 4ra arte
Tokia: Elgoibarko Izarra Kultur elkartearen Ubitarte 4.behea.

PREZIOA

Urteko matrikula 48€ (ordainketa 2 epetan egiteko aukera)

Ordainketa kontu-zenbaki honetan egingo da:

2101 0036 65 0124148420.

Izen-emate fitxa eta baimen orriarekin batera,
ordainagiria ekarri beharko da Elgoibarko Izarran.

Ubitarte 4, behe. 943 74 16 26





euskara hizkuntzako Tertuliak

IZENA EMATEKO EPEA:
urriaren 14ra arte

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
Ubitarte 4 , behea - 943 741 626



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



**ONGI ETORRI
BIENVENID@**



Udal Euskaltegia
Nafarroa plaza, 2 - 943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

**ANIMATU
EUSKARA ZAIN DAUKAZU**
Bekak eta laguntzak

**HITZ EMATEN DIZU
TE DA LA PALABRA**



AEK Euskaltegia
Plaza txikia, 3 - 607 601 423
elgoibar@aek.org

**ANIMATE
EL EUSKARA TE ESPERA**
Becas y ayudas



elgoibar
biziz-biziz



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



2012ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: ELGOIBAR (lekuak, txokoak, paisaiak, jaiak, ohiturak...)

SARIA: 12 argazki sarituko dira, bakoitza 65 euroekin.

EUSKARRIA: paper fotografikoa edo argazki digitala CD batean nahiz emaillez.

Lanen aurkezpena: bi aukera,

1. Postaz edo eskura: itxitako gutunazalean eta barruan egilearen datuak.
2. Emaillez, euskara@elgoibar.org helbidera bidalita. Partehartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua izan dela jakinarazteko.

Lanak aurkezteko azken eguna:
2011ko urriaren 17a .
Informazio gehiago: Kultur Etxean
(Euskara Saila), telefonoa 943744366.



elgoibar
bizibizitza



Euskal Sagardoaren Selekzioa EIBARREN

ontolotzaileak:



Euskara Elkarteak

BIHAR
Urriak 1
zapatua

12:00-15:30
19:00-amaitu arte



ALORRENEA - ALTZUETA - BARKAIZTEGI - BEGIRISTAIN - EGI-LUZE - GARTZIATEGI - GAZTAÑAGA - GURUTZETA - ISASTEGI - OLAIZOLA - SARASOLA - ZAPIAIN - ZELAIA

Haritz dantza taldeak ezpata dantza irudikatuko du domekan, Errosario kaleko Ama Birjinaren omenez

Errosario kaleko jaiak urriaren 5etik 8ra bitartean ospatuko dituzte

Hirugarren urtez irudikatuko du Haritz dantza taldeak ezpata dantza, Errosario kaleko Ama Birjinaren omenez. 2009an erabaki zuen dantza taldeak Errosario kaleko ezpata dantza berreskuratzea, eta ohitura hori tradizio bilakatu da, dagoeneko. Dantza taldeko kideek argi daukate, behintzat, ohitura honekin aurrera egingo dutela, herritarrek nahi duten bitartean. Orain arte, urriko bigarren domekan egin izan dute, baina aurten, urriaren 2an dantzatuko dute, lehen egiten zen bezela, urriko lehenengo domekan. Meza Nagusian lau buruzagiek jainkoaren aurreko ezpata dantza egingo dute, eta ondoren, Plaza Handian, Nafarroa Plazan eta Errosario kalean egingo dute dantza. Guztira, 30 bat dantzarik hartuko dute parte, eta talde mistoa izango da, hau da, neskek eta mutilak arituko dira dantzan. Ohitura zaharri jarraituz, dantzaldiaren ostean pastak eta ardo gozoa eskainiko dizkiete herritarrei, udaletxe azpian.

Elgoibarko ezpata dantza

Ezpata dantza mota asko daude, eta toki askotan egiten da, baina denak desberdinak dira. Elgoibarko Ezpata dantzari buruzko erreferentzia oso gutxi dago. Koldo Lizarralderen *Elgoibar dantzan* liburuan azaltzen denez, orain dela 500 urte ingurukoa da Elgoibarko ezpata dantza. Batzuek gudarekin lotzen dute, baina beste batzuen ustez, gremioen dantza da. Normalean, herriko jaietan edo herriko pertsona garrantzitsuak omentzeko egiten zen. XVI. mendean Corpus egunean dantzatzen zen Elgoibarren, baina gero, Errosario kaleko Ama Birjinaren Kofradia sortu zenean, urriko lehenengo domekan dantzatzen hasi ziren, Errosario kaleko Ama Birjinaren omenez.

Inork ez daki oso ondo zein ezaugarri zituen garai hartako dantzak, baina Juan Antonio Urbeltz dantza adituaren laguntzaz, orduko ezpata dantzaren birmoldaketa egin du Haritz dantza taldeak. Dantza berezia da, Elgoibarrera moldatutakoa eta Haritz dantza taldeak soilik dantzatzen duena.



Meza Nagusiaren ostean egingo dute ezpata dantza.

Errosario kaleko jaiak

Iritsi dira aurten ere Errosario kaleko jaiak, eta antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute, urriaren 5etik 8ra bitartean.

URRIAK 2, DOMEKA

11:30 Meza eta, ondoren, ezpata dantza

19:00 Errosarioa eta meza
19:30 Munduko II. igel-toka jaurtiketa txapelketa
20:00 Salbea

URRIAK 5, EQUAZTENA

12:30 Txapliguak eta Ama Birjinari lore eskaintza
17:00 Txokolata jana, Baltasar Elkartek eskainita, Jai Alai Taberna parean

21:15 Afari herrikoia, kultur etxeko sotoan

URRIAK 8, ZAPATUA

PILOTA: IO BAI TORNEOA

10:30 Infantilak
11:15 Kadeteak
12:15 Seniorrak
13:00 Herrikirolak, Nafarroa plazan (Kultur Etxe aurrean)

URRIAK 6, EQUENA

18:00 Sokamuturra, Arnoko zezentxoekin
20:00 Luntxa, kultur etxeko sotoan

URRIAK 7, BARIXAKUA

9:00 Meza
17:30 Kiribilka, Atxutxiamaikak antolatuta
18:30 Mauxitxa Txarangaren kalejira





MILAR BIRE

www.milar.es

Ubitarte, 11 - Tel.: 943 741 487
Elgoibar



COMBI LG.

GR - 3891 SQA
A +
No frost
1.88ko altuera

399 €



LED LG.

32 LV 2500
TDT bereizmen
handikoa
USB DIVX HD

379 €



TEKA - HE 621 INOX.

Labe multifuntzio-independientea

259 €



FAGOR ARROPA-GARBIGAILUA

L-7712 S
A+
7 Kg.
1200 RPM

359 €



ZANUSSI - ZIT 649

Indukzio plaka
Ukimen kontrola
Biselatua
Gune bikoitza

369 €

Promozio honek akats tipografikoak ezean, produktuak bukatu arte balio du.
Baldintzak kontsultatu dendan.

Prezio izugarriak!!!

AINARA GARCIA

DEBEGESAKO GIZA KAPITALAREN
GARAPEN SAILEKO TEKNIKARIA

“Pertsonak
daude
garapen
baten
oinarrian”

Debarrena Saria banatuko du Debegesak bigarren urtez, *Gure Balioak* kanpainaren baitan. Debarrenan etorkizunean landu beharreko zenbait balio indartzea dauka kanpainak helburu eta baita sariak ere. Urriaren 7an bukatuko da herritarrek hautagaitzak aurkezteko epea.

Ainhoa Mendiil Artetxe

Nondik dator *Gure Balioak* kanpaina?

Debegesan hasi ginen poliki-poliki entzuten gizartean balioen galera bat zegoela. Gaur egungo gazteek ez daukatela esfortzurako grinik, edo ekintzailetasuna ez dela lehen zen bezalakoa. Errespetuaren balioa ere galtzen ari zela. Eta gero, krisiaren inguruan berbetan hasi zirenean, gero eta gehiago entzun zen balioen krisi baten aurrean geundela.

“Gizartean balio horiek
barneratzea ere
bada sariaren
helburua”

Debegesa bezala, ez gara adituak horretan, baina Debegesaren helburuetako bat Debarrenaren garapen jasangarria denez, horri heltzea erabaki genuen. Eta go-goeta bat beharrezkoa zela iruditu zitzaigun, uste dugulako garapen batean, oinarrian daudenak pertsonak direla, pertsonen ekintzak, pertsonen jokabidea, eta azken batean horrek eragiten duela gero alde ekonomiko eta sozialean.

Zein izan zen proiektua martxan jartzeko lehen pausua?

Diagnosi bat egin genuen lehenik eta behin. Ehun pertsona baino gehiago batu ginen, norbanako moduan, eta baita eskualde mailako eragileen izenean ere. Gaur egun indar gehien daukaten balioak zeintzuk diren erabakitzen ahalegindu ginen lehenengo, eta horrekin batera etorkizunera begira, garapen jasagarria lortzeko, indartu beharko lirakekeen balioak ere izendatu genituen: integritatea, errespetua, ekintzaitetasuna eta lankidetzakelkarlana.

Azken aldian sarritan entzundako hitza da ekintzaitetasuna; baina zer da zehazki hori?

Ekintzaitetasuna definitzen dugunean, ez dugu bakarrik enpresari begirako ekintzaitetasunaz hitz egiten, baizik eta ekinez, ekimena edukitzeaz, jarrera aktibo horretaz, baina orokorrean.

Eta horren harira antolatu duzue Debabarrena Sariaren bigarren edizioa?

Bai. Azken batean, lau balio horiek teoriakoki kokatu ostean, praktikara eraman beharra dago eta horretarako badaukagu ekintza plan bat. Eta ekintza plan horretan, sensibilizazio lanaren barruan kokatzen ditugu sariak. Azken batean, sariaren helburua ere bada-eta, balio horiek gizarteak barneratu eta horien arabera jardutea.



Asteartean Eibarren egindako ekitaldian aurkeztu zuen Debegesak 'Gure Balioak' kanpaina bere osotasunean.

Zertan datza sariak zehazki?

Esan bezala, guk balio horiek zabaldu nahi ditugu eta horretarako, jendeak, sari hori merezi dutenen hautagaitzak aurkezteko aukera dauka. Pertsona, erakunde edo eragileak izan daitezke hautagaiak. Hautagaitzak herritarrek aurkeztuko dituzte, baina hautagai guztien artean aukeratzeko lana, Debegesak jarritako epaimahaiaren esku geratuko da. Guztien ar-

retetik bat aukeratu, eta bera izango da sariduna. Aipatutako lau balio horiek landu dituen izan beharko du irabazleak.

Bigarren edizioa da aurtengoa. Zer moduz aterazten da?

Oso ondo. Hogei hautagaitzatik gora egon ziren, eta azkenean Maria Teresa Ganchequi Juaristi eibartarrak irabazi zuen saria. Elgoibartar bat baino gehiago ere izan ziren hautagai.



Concepto Egile, Gipuzkoako talde bakarra 2B mailan



Joan zen zapatuan egin zuen CD Debarrena areto futbol taldeak denboraldiko aurkezpena, eta bihar ekingo diote aurtengo liga txapelketari. Concepto Egile taldeak Bigarren B mailan jokatu du aurtengoa, eta erronka berri horri ilusioz heldu dio klubak. Hala ere, badakite hainbat zailtasun eta oztopo gairatu beharko dituztela denboraldian zehar. Jose Ramon Iriarte klubeko presidentek bi helburu aipatu ditu, bereziki: gazteak klubera erakartzea eta bazkide berriak lortzea. Baina horren gainetik, mailari eustea da euren nahia.

Ainhoa Andonegi

Azken urteetako lorpenik handiena eskuratu zuen joan zen denboraldian Debarrena klubak, izan ere, lehen taldeak Bigarren B mailara igotzea lortu zuen, eta maila horretan dagoen Gipuzkoako talde bakarra da. Aurtengo denboraldiko helburua mailari eustea dela aurreratu dute klubeko arduradunek, eta horretarako talde sendoa prestatu dute.

Bihar ekingo dio Concepto Egile taldeak aurtengo liga txapelketari, eta kategoriako talderik gogorrenetariko bat izango dute aurrez aurre: Zierbena. Partida 19:30ean hasi-

ko da Olaizaga kiroldegian, eta klubeko arduradunek herritarren babesa eskatu dute, taldeak guztien babesa beharko baitu denboraldi honetan.

Bost talde

Debarrena Areta Futbol kluba orain dela 23 urte sortu zuten, CD San Pedro izenarekin. Eibarren Eibarsala eta Ermuan Santixauak taldeak sortu zituen gero klubak, baina indarrak talde bakar batean batzea eraginkorragoa zela ondorioztatu zuten, eta, hurrezkerok, bailarako izaera hartu du klubak. Iazko denboraldian bost talde osatu zituzten,

eta aurtengoa ere hala izango dira: senior mailako bi, jubenilak, kadeteak eta infantilak. Eskualdeko eta Gipuzkoako talde erreferentea izatea da Debarrena Areta Futbol klubaren helburu nagusia, eta horretarako, zuzendaritza berria eta entrenatzaile talde profesionala prestatu dituzte. Hala ere, klubak ez du lortu oraindik gaztetxoak erakartzea, eta hori izango da aurrerantzean lortu beharreko erronketako bat. Era berean, Bigarren B mailan jokatzeko klubak aurrekontu handiagoa behar du, eta horretarako ezinbestekoa da bazkide berriak lortzea. Klubak bikoiztu egin du aurrekontua iaztik.

Bigarren B mailari eustea izango da taldearen helburua denboraldi honetan



Jose Ramon Iriarte
Klubeko presidentea

“Ni seguru nago areto futbolak ere badaukala lekua Elgoibarren”

Zein da klubaren helburua denboraldi honetan?

Aurtengo helburu nagusia Concepto Egile taldeak Bigarren B mailari eustea da, du-darik gabe. Horrez gain, Concepto Egile taldea eskualdeko erreferente bilakatzea nahi dugu. Horretarako fitxaje berriak eta onak egin ditugu: Ibarako Unai Labaka, Lezoko Xabi Perez eta David Guerra, besteak beste. Azken honek lehenengo mailan jokatu izan du, eta orain gaztetxoak entrenatzen ditu. Guretzako luxu bat da. Era berean, senior mailako bigarren taldea Gipuzkoako kategoriatik Euskal Ligara igotzea nahiko genuke, talde nagusiaren harrobi zuzena izateko.

Bigarren B mailan jokatuko du Concepto Egile taldeak aurtengo denboraldian, baina ez da maila hori lortzen duen estreinako aldia.

Ez, 2002-2003 denboraldian egon ginen maila honetan, baina igo eta jaitsi egin ginen. Ez geneukan gehiagorako ahalmenik.

Zenbateko aurrekontua daukazue aurtengo denboraldirako?

Iazko bikoitza, gutxi gorabehera. Orain arte 75.000 euroko aurrekontuarekin moldatzen ginen, baina aurtun, 150.000 euroko aurrekontua daukagu. Bidaia luzea-

goak dira, eta Euskal Herritik kanpora jokatuko dugu askotan. Besteak beste, Burgos, Kantabria eta Aragoaraino joan beharko dugu. Eta, jokalariei ere ordaindu egin behar zaie, jakina.

Nondik lortuko duzue diru hori?

Elgoibarko eta Eibarko Udalek 3.500 euroko diru-laguntza ematen digute, eta aurtun posible da Foru Aldunditik ere laguntza txiki bat jasotzea, baina beste guztia publizidadetik lortzen dugu. Horrekin, baina, ez da nahikoa, eta aurtun etxeko partidetan sarrera kobratuko dugu. Jendea partidak ikustera joatea ezinbestekoa da guretzat.

Bost talde ditu klubak, baina gazteengana ez zaretela iristen.

Hala da. Ez dugu lortzen gaztetxoekin konektatzea, eta hori da gure helburuetako bat. Horretarako arduradun bat jarri dugu aurtun, eta bera arduratuko da, ikastetxeekin elkarlanean, gaztetxoak areto futbolera erakartzeaz. Eskola Kirolaren barruan areto futbola sartzeari garrantzitasuna eman behar da, eta gu edozertan laguntzeko prest gaude, baina Elgoibarren gazte gehienak futbola nahiago dute. Ni-ri izugarri gustatzen zait, baina era berean, jokalaria gehien erretzen dituen kirola dela iruditzen zait. Gaztetxoek ilusio han-

dia izaten dute, baina futbolarik jokalaria gutxi ematen die gero irteera. Aretotako futbolak, aldiz, aukera gehiago eskaintzen ditu, eta kanpo handirako balio ez duten jokalaria askok kanpo txikian primeran jokatzen dute. Eskubaloia ere oso ondo antolatuta dago Elgoibarren, eta Sanlokarri egin duen lana ikaragarria izan da. Harreman ona daukagu guztiekin, baina ni seguru nago areto futbolak ere lekua badaukala Elgoibarren.

Debabarrena kluba Elgoibarren sortu zen 1989an. Zergatik eman zenuten eskualderako jausia?

Eskualdeko ikuspegia daukagu, eta Elgoibarren, Eibarren eta Ermuan jokatzen dugu. Etorkizunean Sorluze, Bergara edota Mendarora zabaltzeko asmoa ere badaukagu. Esan daiteke, gure proiektua eskualdetik haratago ere badoala, eta Gipuzkoako taldea garela esango nuke, eta egunen batean Euskadiko taldea izango gara. Horretarako kanpoko jokalariek ekartzea ezinbestekoa da, baina etxekoei lehentasuna eman nahi diegu. Etxeko jokalariek prestatzen ari gara, baina hori ez da egun batetik bestera lortzen, eta denbora beharko dugu. Gazteekin lan egiteko teknikariak jarri ditugu, eta beheko mailetan lanean ari gara.

BAZKIDE KANPAINA

Bigarren B mailan jarduteko ezinbestekoa du CD Debarrenak herritarren babesa, eta horretarako bazkide kanpaina jarri dute martxan. 30 euro balio ditu urteko bazkide-tza kuota, eta bazkide berri bakoitzak opariak jasoko ditu. Bakarkako bazkide-tza egiten duenak Martin Berasategi sukaldariak gomendatutako laberako hiru ontzi jasoko ditu opari, eta familia bazkide-tza egiten dutenek bi opari izango dituzte aukeratzeko: Bi ontzi sorta edo trolley maleta.

Bazkide egiteko aukera desberdinak jarri dituzte: Nahi duenak King-Kong tabernan bete dezake bazkide izateko formularioa, edo bestela, areto futboleko dabilen edozein lagun bitartez ere egin daiteke.

Aiastiara korrika igoera egingo dute domekan, San Migel jaien barruan

Izenematea egunean bertan egin daiteke, Giza Eskubideen parkean

San Migel jaietako egitarauko azken ekitaldia izango da Aiastiara korrika igoera. Domekarako antolatu dute kirol proba, eta 12:00etan hasiko da Plaza Handian. Parte hartzaileek Plaza Handitik Murkaikupe frontoirainoko ibilbidea egin beharko dute korrika, guztira bost kilometroko ibilbidea osatu arte. Lehenengo hiru sailkatuek garaikurra jasoko dute, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere. Horrez gain, irabazleri txapela ere emango diote, eta Belaustegi jatetxean bi lagunentzako bazkaria ere bai. Interesatuak, lasterketa hasi baino lehen eman dezakete izena, Giza Eskubideen parkean.



Morkaikoren kamiseta teknikoak salgai daude



Morkaiko Mendizale elkarteak kamiseta teknikoak jarri ditu salgai. Mutilentzako, neskenzako eta umeentzako kamisetak atera dituzte, eta 10 eurotan erosi daitezke. Interesatuak, Morkaikoren egoitzan eskuratu ditzakete astelehen eta eguenetan (19:00-20:30), edo bestela, Astigarraga eta Iriondo kirolak dendetan ere erosi daitezke.

Sanloko infantil nesken taldeek Barakaldon jokatu dute

Sanlo eskubaloi taldeko infantil nesken bi taldeak (Aterpe eta Ikus) Zuazoko kantxara joango dira datorren asteburuan launakako torneo txiki bat jokatzera, Ermuko Errotabarri, Basauri, Barakaldoko Zuazo eta Galdakaoko taldeekin batera. Pratida guztiak Barakaldoko Lasesarre kiroldegian jokatu dituzte bihar, eta partida bakoiza 30 minutukoa izango da.



I. URTEURRENA

IGNACIO GARATE BASTIDA

2010eko irailaren 30ean hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urriak 2, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Dozena bat elgoibartarrek hartu zuten parte Josetxo Imaz Memorialean

969 lagunek hartu zuten parte guztira

Joan zen domekan jokatu zuten Josetxo Imaz memorialeaz Lazkaon, eta bertan, Elgoibarko dozena bat korrikalarik hartu zuten parte. Ordizia, Beasain eta Lazkao artean hamar kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten korrikalariak, eta helmugaratzen lehenengoak Gontzal Sanz (30:30) eta Raquel Llamas (36:04) gasteiztarrek izan ziren. Elgoibartarren denborak eta postuak ondoko koadroan dituzue:

143. Martin Dominguez	38:02
166. Iñigo Iturbe	38:31
176. Iñigo Salegi	38:45
283. Jesus Arrieta	40:47
356. Jose Luis Diez	42:24
550. Pilar Arriola	46:12
555. Alberto Seijas	46:16
556. David Garcia	46:16
583. Javier Agirrebeña	46:47
638. Josu Zubiaurre	47:53
659. Carlos Ayesta	48:25
672. Joxean Gurrutxaga	48:36

Futbol eskolan izena emateko epea zabalik dago

2001ean jaiotako umeek futbol eskolan sartzeko aukera dute. CD Elgoibarrek izena emateko epea zabaldu du, eta interesatuek Mintxetan bertan eman dezakete izena.

Rolleski igoera antolatu dute urriaren 12rako



Morkaiko mendizale elkarteak San Pedrorako rolleski igoera antolatu du urriaren 12rako. Bi ibilbide prestatu dituzte: bata 3,9 kilometrokoa, Plaza Handitik Idotorberaino, eta bestea, erdi bidetik hasita, gutxi gorabehera. Ondoren, bazkaria egingo dute, eta dena prestatu ahal izateko, antolatzaileek aurrez izena emateko eskatu dute. Probaren ostean dutxa hartzeko aukera egongo da. Interesatuek Morkaikoren egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean eman dezakete izena. Rolleski proba 12:30ean hasiko da, eta aurretik, Lagun Taldeak antolatutako txirindulari igoera ikusteko aukera izango dute bertaritzen direnek.

EMAITZAK

FUTBOLA

Santutxu 0 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 0 – Aretxabaleta 1 (Ohezezo maila)
Elgoibar 0 – Euskalduna 2 (Jub.)
Elgoibar 4 – Aretxabaleta B 1 (Kad. A)
Urki 5 – Elgoibar 3 (Kad. B)
Ilintxa 1 – Elgoibar 1 (Inf.)
Elgoibar 2 – Mutriku 2 (Erreg. nesk.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak 22 – Aurrera Saiaz 17 (1. mailako nag.)
Intxurre 22 – Lagunak 13 (2. mailako nag.)
Lagunak 19 – Hernani 22 (1. mailako jub.)
Bergara 22 – Lagunak 20 (2. mailako jub.)
Hondarribia 22 – Lagunak 6 (2. mailako kad.)
Pala
Batzokiko 17 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)
Zarautz 3 – Lagunak 25 (3. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 6 – Laskorain 2 (2.B)

ESKUBALOIA

Gasteiz 33 – Alkorta Elg. 30 (Sen. mut.)
Kukullaga 27 – Tecnifuelle Elg. 31 (Sen. nesk.)
Soraluze 30 – Beristain Elg. 31 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 35 – Pulpo 26 (Jub. nesk.)
IMH Elg. 24 – Pulpo 21 (Kad. nesk.)
Eibar 16 – Astigarraga Elg. 21 (Kad. nesk.)
Bankoa Elg. 21 – Eibar 31 (Inf. mut.)
Eibar 11 – Ikus Elg. 26 (Inf. nesk.)
Txariduna Elg. 25 – Eibar 12 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 1
19:30 Concepto Egile Elg. – Zierbena (2.B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1
10:00 Elgoibar – Lagunak (Inf.)
12:00 Elgoibar – Antzuola (Kad. B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 1
10:00 Astigarraga Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)
11:30 Grupo Eibar Elg. – Egia (Kad. mut.)
16:00 IMH Elg. – Urdaneta (Kad. nesk.)
17:30 Lauko Elg. – Basauri (Jub. nesk.)

ESKU PILOTA

Baixakua, 30
21:15 Lagunak – Aurrera Saiaz (2. mailako nag.)
22:00 Lagunak – Loiolatarra (2. mailako nag.)

Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin afaria egingo dute gaur, San Migel jaietan

Herri Kirolak eta Haritz dantza taldearen saioa izan ziren joan zen asteburuan

San Migel jaien barruan Gazteen Eguna ospatuko dute gaur, Aiaštian. 20:00etan triki-bertso kalejira egongo da, Ekaitz eta Arantza trikitilariekin eta Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin. Ondoren, bertso afaria egingo dute, eta afal osterako disko festa antolatu dute. San Migel jaiak domekan amaituko dira.

Giro ona joan zen asteburuan

Herri kirolak izan ziren protagonista joan zen asteburuan Aiaštian. Zapatuan bederatzi artzainek hartu zuten parte Euskal Herriko arraza libreko artzain txakurren txapelketan, eta bertan, Azpeitiko Iñaxio Etxeberria eta *Kimi* izan ziren irabazleak. Jose Antonio Arrillaga elgoibartarra eta *Txiki* laugarren lekuan sailkatu ziren. Ekitaldiaren amaieran, Pedro Mari Egaña *Mintxeta* harri jasotzaileari omenaldi txiki bat egin zioten. Gauean, Haritz dantza taldeak moto istripuz hildako Borja Uzuriagari eskaini zion dantzaldia, eta ikusleak dantzan jarri zituzten, Murkaikupe frontoian.

Domekan, bestalde, idi demak izan ziren eguneko ekitaldirik esanguratsuenak. Azkoitiko Isidro Erregetia izan zen garaile, 45 plazarekin eta Soarte elgoibartarra bigarren lekuan sailkatu zen, 33 plazarekin.



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenak jokatu dituzte bihar Elgoibarren



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final zortzirenetan sartu da, eta biharko saioa Elgoibarren jokatu dute. Egoitz Eizagirre oriotarra, Jokin Uranga azpeitiarra, Joxe Munduate ataundarra, Mikel Arrillaga eibartarra, Oier Aizpurua zarauztarra eta Unai Gaztelumendi añorgarra izango dira partaideak. Bertso saioa 17:30ean hasiko da, Herriko Antzokian. Sarrera arruntak 8 euro balio ditu, eta gazteen-tzako sarrerak, 3 euro.

‘Negar egiten duen behia’ dokumentala, urriaren 5ean

Okil Beltzak taldeak *Negar egiten duen behia* dokumentala eskainiko du urriaren 5ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Emanaldia euskaraz edo gazteleraz ikusteko aukera egongo da. *Negar egiten duen behia* Saharako desertuan grabatutako lana da, Tassili N'Ajjer ingurunean, hain zuzen ere, eta ordubete irauten du. Dokumentala 19:00etan hasiko da, eta ondoren, solasaldia egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, dokumental hori jendaurrean sekula eman gabe dago.

Hiru hitzaldi antolatu dituzte Elgoibarko Izarrak eta Udalak urrirako, 'Izanaren izena' zikloaren barruan

Eguaztenean izango da lehen saioa; Elgoibarko toponimiari buruzkoa

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udaleko Euskara Sailak *Izanaren izena* hitzaldi zikloa antolatu dute, eta hiru hitzaldi eskainiko dituzte urrian zehar. Lehenengo saioa urriaren 5ean izango da, eta bertan, toponimiaren lana aurkeztuko dute Amaia Pinacho eta Nerea Alaba, Elgoibarko Toponimia lanaren egileek; eta Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkari eta ikerketaren tutoreak. Hitzaldi horretan Elgoibarko toki-izenen jatorria azalduko dute. Bigarren hitzaldia Jesus Mari Makazaga filologo eta EHUKo irakasleak eskainiko du, urriaren 19an. Makazagak bere tesi lanean oinarrituta, Elgoibarko ahozko euskarari buruzko hitzaldia emango du. Azkenik,



Amaia Pinacho, Nerea Alaba, Jesus Mari Makazaga eta Mikel Gorrotxategi.

urriaren 26an, euskal izen-abizenen historiari buruz hitz egingo du Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiaren Onomastika Saileko idazkariak. Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Izen-abizenak euskaraz

Ziklo honen barruan, bestalde, elgoibartarren izen-abizenak euskaratzeko kanpaina jarriko dute martxan, azaroaren 11tik abenduaren 16ra arte.

Gazteek euskararen gaineko gogoeta egiteko programa prestatu du Elgoibarko Izarrak



Herriko nerabeek eta gazteek euskararen erabilerari buruzko gogoeta egiteko programa berezia prestatu du Elgoibarko Izarrak, Udaleko Euskara Sailaren babesarekin, eta Ikastola eta BH Institutuarekin elkarlanean. Metodologia parte hartzaile eta dinamikoen bidez, nerabeentzako eta gazteentzako motibazio saioak landuko dituzte, gogoeta eta eztabaidetan oinarrituta. Horrez gain, ekintza osagarriak ere antolatuko dituzte, eta gazte horientzako erreferenteak diren pertsonaiak ekarriko dituzte herrira. Besteak beste, Julian lantzi telebista aurkezlea, *Bua Txabal* ikuskizuna eta Iñaki Perurenaren *Harriz eta herriz* hitzaldi-ikuskizuna ekarriko dituzte. Programazio berezi hau urritik abendura bitartean gauzatuko dute.

Honekin batera, nerabeek euskaltasuna nola bizi duten jakiteko eta euskalgintzan diharduten elkarte eta erakundeengandik zer jaso nahi duten jakiteko, Elgoibarko Izarrak eta Udalak gogoeta prozesu bat ipini dute abian; nerabeek eta gazteek gai horri buruz pentsatzen dutena jasotzeko.

Joseba Irazokiren kontzertua gaur, Kultur Etxean

Sinuosek antolatutako *Sotoko Hotsak* musika jaialdiaren barruan, Joseba Irazokiren kontzertua izango da gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileek esandakoaren arabera, hainbat proiektutan murgilduta dago Berako musikaria, eta gaur gauean saio "ikonoklasta" bat eskainiko duela aurreratu dute. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrerak 3 euro balioko ditu.

Marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa

Egur arte tailerrak marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa antolatu du. 30 orduko ikastaroa prestatu dute, eta urriaren 3tik azaroaren 9ra arte iraungo du. Interesatuak 666 557 538 telefonora deituz eman dezakete izena.

Euskal dantzen ikastaroa

Haritz dantza taldeak eta Inazio Bereziartua musika eskolak euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Bi maila bereiztu dituzte: ibilitakoak eta hasi berriak. Interesatuak urriaren 7ra arte eman dezakete izena, musika eskolan (943 742 158).

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest. Papelak araututa ditut. ☎ **679 649 399**
- Gizona txofer edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **679 649 399**
- Mutila lanerako prest. Banatzaile, eraikuntza lanetarako, sukalde laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **690 861 846**
- Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBHko ikasgai guztiak eta Batxilergoko ingelesa. Talde txikietan edo banaka. Esperientzia eta titulazioa ditugu. ☎ **617 226 305 / 669 230 428**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Klase partikularrak ematen dira. Batxilergoko matematika, LH, DBH eta Kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Alemanierazko klase partikularrak ematen ditut, haur, gazte eta helduentzat. ☎ **670 793 312**
- Elgoibarren bizi den neska euskalduna umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 984 397**
- DBHko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **635 313 375**

- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest. ☎ **681 154 706**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Neska edozein lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **663 115 241**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 014 327**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **678 932 443**

ESKAITZA

- Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska izatea nahiago dugu. ☎ **943 121 262**
- Emakume edp neska euskalduna behar da, orduka umeak zaintzeko. ☎ **699 217 721**
- Malape tabernarako zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. ☎ **686 771 339**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Berritutako etxea alokatzen da erdigunean. Altzari eta igogailuarekin. ☎ **685 706 001 (20:30-23:00)**

- Logela bat alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua, sukalde eta erropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**

SALMENTA

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **648 191 076**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukalde altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**

BESTELAKOAK

- Saxofoia salgai. Altua. Yamaha, Eb, YAS-275, c/fa sost. Urte betez erabilia. 650 euro. ☎ **609 893 898 (Arantza)**
- Urrezko pultsera galdu dut. Bost elefante eta lau inzial ditu. Sentimenduzko balio handia du. Saritu egingo da. ☎ **690 701 118**
- McLaren markako umeentzako auto tolesgarria salgai. Egoera ezinhobean. 60 euro. ☎ **678 386 033**

KINTOAK

- 1972an jaiotako zortzigarren maila Aita Agirre ikastetxean egin zutenek kinto bazkaria antolatuta dute azaroren 5erako. Interesatuak, deitu ondorengo telefonoez: ☎ **678 437 633 (Elena) / 619 966 434 (Ana)**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)
Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro
 Iragarkiarri erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Zure semeak ondo ikusten duen seguru zaude?

FEDEROPTICOS IKUS-en ikusmen azterketak egiten ditugu, begi alferra, desbideratzea edo ikusmen txarra antzemateko, eta era berean, ikasketa arazo posibleak eragozteko.

FEDEROPTICOS IKUS
 Jose de Ariztegui kalea, 10
 Tel.: 943 157 574 - AZPEITIA

San Bartolome kalea, 10
 Tel.: 943 743 734 - ELGOIBAR




MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
 Zolak ezartzea
 Lanak egiteko aukerak, PVC
 Pisuak orratzea

San Roke, 7 behea
 Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
 Tel. 943 749 676





• Zorionak, **Ander**, gaur, hilak 30, 10 urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Nerea, Leire, Paula eta Sararen partez.



• Zorionak, **Nahia**, 4 urte egingo dituzulako astelehenean. Gurasoen partez.



• Zorionak, **etxeko printzesari**, atzo 8 urte egin zituelako. Aita, ama eta, bereziki, anaia Oierren partez.



• Zorionak, **Cristina!** Hainbeste ahaleginen ondoren, lortu duzu! Muxu asko gurasoen eta Amaiairen partez.



• Zorionak, **Daniel**, irailaren 26an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Naroa**, zure lehen urtebetetzear! Muxu asko familiakoen eta, bereziki, Malenen partez.



• Zorionak **Maddi!** A ze astea! Hortz bat gutxiago eta urte bat gehiago! Ondo pasa! Muxu handi bat Manexen eta guztion partez.



• Zorionak, **Ander**, zure bosgarren urtebetetzear. Etxeko guztien partez. Ondo pasa zure lagunekin.



• Zorionak, **Alain**, irailaren 26an 9 urte egin zenituelako. Amamaren, izekoren eta gurasoen partez. Muxu bat!



• Zorionak, **sorginbo**, asteazkenean 2 urte beteko dituzulako. Malen, muxu handi bat familiako guztiaren partez!



• Heldu da askok espero genuen eguna! Bihotz bihotzez, muxu potolo batekin. Zorionak **Iñigo eta Miren**, zuen familiakoen eta, bereziki, Maialen, Irati eta Mikelen partez.




• Zorionak, **bikotek!** Azkenean heldu da zuen eguna! Ondo-ondo pasa. Koadrilakoen partez.



• **Dibina!** 23 urte! Segi irribarrez gerra ematen.



• Zorionak, **Javier eta Iker**, familiako guztien partez.



• Zorionak, **bikotek!** Ondo pasa eguna eta bidaia ona izan! Patxo bana, lagunen partez.

• Zorionak aitatxo Javi eta osaba Iñigo. Familiakoen, eta bereziki, Mikel eta Ohianeren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Abuztuko irabazlea:
MARIA ASUN

Abuztuko saria:
PEDIKURA ETA BETELEN TINDAKETA ETA PERMANENTEA

Idama



Iraileko irabazlea
ESTHER IRIGOIEN

Iraileko saria:
3 ORRAZKERA ETA 3 HIDRATATZEKO TRATAMENDUA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) Tel.: 943 74 40 26

30 barixakua

Delikula

11:15 eta 19:15 'Elgoibar 1961'
Dimas Gil eta Maritxu Osorok
eginiko filma emango dute
Kultur Etxean.

Erakusketa

18:30 Margo erakusketa
Pedro Luengo eta Udane
Juaristiren margo erakusketa.
Urriaren 16ra arte egongo da
ikusgai, Kultur Etxean.

Musika

22:30 Sotoko Hotsak
Sinuosek antolatuta, Joseba
Irazokiren kontzertua, Kultur
Etxeko sotoan.

1 zapatua

Bertsolaritza

17:30 Gipuzkoako txapelketa
Herriko Antzokian.

2 domeka

Dantza

11:30 Ezpata Dantza
Meza Nagusiaren ostean, Haritz
Dantza taldeak ezpata dantza
egingo du, Errosario kaleko
Ama Birijinaren omenez.

4 martitzena

Hitzaldia

19:30 Elikadura makrobiotikoa
Marta Francisco Barcenas
elikaduran adituak eskainiko du,
Kemen belardendan.

5 eguztina

Hitzaldia

19:00 Toponimia: Elgoibarko
toki-izenak
Euskara Sailak eta Elgoibarko
Izarrak antolatuta, Kultur
Etxean.

Bilera

19:30 Kontsumo taldea
Mendaroko udaletxean

SAN MIGEL JAIK 2011

30 BARIXAKUA

GAZTEEN EGUNA

20:00 Triki bertso kalejira
Ekaitz eta Arantza
trikitilariekin eta Andoni
Egaña eta Julio Soto
bertsolariekin.

21:00 Bertso afaria
Ondoren, disko festa

2 DOMEKA

11:15 Meza

12:00 Aiaستيara korrika
igoera



Ostiral honetan etor zaitez Kiribilen eta
Ludoren festara: **jolasak, eskulanak,**
globloflexia... 17:00etatik aurrera, Plaza Handian

Gaur arratsaldean Elgoibarren **surf**
egiteko aukera izango duzu!
Gerturatu gaztelekura eta igo olatura!



OKINDEGIA

FARMAZIAK (24 orduz)

- 30 Zabaleta
- 1 Etxeberria (Errosario)
- 2 Etxeberria (Errosario)
- 3 Ibañez
- 4 Garitaonandia-Bidas.
- 5 Etxeberria (Santa Ana)
- 6 Fernandez
- 7 Yudego

2 domeka IBARRENEA

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

B

BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea

ELGOIBARKO
LUDOTEKAN
LAN EGITEKO
HEZITZAILEA
BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- Haur eta gazteen munduan gutxieneko esperientzia eta eskarmentua izatea.
- Honako titulazio hauek izatea : Gizarte Heziketa, Gizarte laneko, iraskaskuntzako, psikopedagogia-ko,...erdi mailako unibertsitate tituluak izatea.
- Debarreneko udalerrietan bizitzea baloratuko da.

ESKAINITZEN DA:

- Urte beteko kontratua.

Interesatuak curriculum bidali
Urriaren 6, eguena, arratsaldeko 19:00ak
baino lehen e-posta honetara:
aisia.sustapena@elgoibarkoizarra.com
Tel.: 943 74 16 26 (Edueme)



IZANAREN IZENA

izena duenak izana duelako

Hitzaldi-zikloa:

Urriak 5, asteazkena:

Toponimia lanaren aurkezpena eta **Elgoibarko toki-izenak**.
Hizlariak: **AMAIA PINACHO** eta **NEREA ALABA**, Elgoibarko Toponimia lanaren egileak, eta **MIKEL GORROTXATEGI**, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkaria eta ikerketaren tutorea.



Urriak 19, asteazkena:

Elgoibarko ahozko euskara

Hizlaria: **JESUS MARI MAKAZAGA**, filologoa eta EHUko irakaslea.



Urriak 26, asteazkena:

"Amaia, debekatuta zaude!" euskal izen-abizenen historia.

Hizlaria: **MIKEL GORROTXATEGI**,

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkaria.



Hiru hitzaldiak **Kultur Etxeko hitzaldi-gelan** izango dira,
arratsaldeko **19:00etan** hasita.

TXALO PRODUCCIONES presenta

Ocasiones Especiales

una comedia de
BERNARD SLADE



KITI MÁNVER

JORGE ROELAS

versión y dirección
JUAN CARLOS RUBIO

IKUSKIZUN ESZENIKOAK
ESPECTÁCULOS ESCÉNICOS

Sarrera Salmenta - Venta de entradas



kutxa

CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net

"OCASIONES ESPECIALES" Txalo Produksioak
Urriak 7, 20:00etan eta 22:15ean
Herriko Antzokia



KULTURA

elgoibar
biZi-biZiKa!



Euzko Foru Erkidegoa
Euzko Foru Erkidegoa



SAREA
BURUORDO
ANUEZIO PARSA
RFD BARRUA
DE TEATROS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO